

Marmari Leizako aldizkaria

18. zenbakia / 2009ko ekaina

-Duela 15 urte

-Hizkuntzaren jatorriaz



-Kultur astearen kronika

-Leizako hiztegia...



**Harri, herri,
irri, orri, urri...**

zenbaki honetan:



3. orr. Aurkezpena.

4-7. orr. Peruharri, harriaren hitza

8-9. orr. Testa: Leitzako euskararen hiztegia

10-13. orr. Duela 15 urte

14-15. orr. Leitza Pablo Feoren begietan

16-19. orr. Hizkuntzaren jatorria

20-21. orr. Leitzakultura.net

22-26. orr. 2009ko kultur astea, hamabostaldi kulturala

27. orr. Txistea eta hizkuntzaren bitxikeriak

20-21. or. Eta zuk zer diozu?



HARRI, HERRI, IRRI, ORRI, URRI

HARRI: harriek ez omen dute hitz egi-ten, baina bada herri honetan harriarekin harreman oso estua izan duen jendea, eta ia-ia hitz eginarazi diona. Iñaki Perurena dugu horietako bat. Eta harria bera da protagonista, hain zuzen ere, aldizkari-ko erreportaje batean aurkeztuko di-zuegun Peruharri izeneko proiektuan.

HERRI: herria da, Leitzako herria hain zuzen ere eta ezinbestean, aldizkari ho-netako protagonista. Ez bakarra, baina bai protagonista nagusia. Leitzak, eta lei-tzarrak. Oraingoak eta gaurkoak, eta baita duela urte batzuetakoak ere.

IRRI: ez dugu algararik bilatzen, baina gustatuko litzaiguke aldizkaria ikuste-rakoan zuen gogoan irriño bat piztea. Kontu atseginen bat aurkituko duzuela-koan idatzi dugu, behintzat, ea udara be-gira jarri garen honetan aldartea alaitzen ere laguntzen digun.

ORRI: 28 orrialde dauzka Marmariren 18. zenbaki honek. Zer aurkituko duzun

orri hauetan? Leitzako kultur altxorra-ren zipriztin batzuk (bertako hitzak, Pe-ruharri, kultur astearen kronika, kultur taldearen web-orria); Leitzako historia hurbilaren pasarte batzuk (duela 15 ur-teko kontuak); Leitzak ikusteko modu bat (Pablo Feoren argazkien bitartez); hizkuntzen jatorriaren inguruko ideia eta hausnargai batzuk; txisteak eta bitxi-keriaren bat; eta baita leitzarren batek gure galdera xelebreei emandako eran-tzunak ere.

URRI: Leitzako bizitzako atzoko eta gaurko alderdi askotarikoak eta abera-tsak jasotzeko eta kontatzeko toki asko beharko genuke. Urria da, ordea, 28 orrialdeko aldizkariak ematen duen au-kerak. Eta horixe egin behar, nahitaez: aukeratu. Gaia ematen saiatzen gara, gutxienez, eta zer edo zer kontatzen, ai-tzakia horrekin nork bere bidea egin eta, nahi izanez gero, informazio gehiago bi-latu eta lor dezan. Hala izanen delakoan, 2009ko udako Marmari hau gustukoa izanen duzuela espero dugu.



PERUHARRI

harriaren hitza

Leitza herri emankorra izan da euskal kulturarekin lotuta dauden hainbat alorretan. Bertsolariak eman ditu, herri-kirolariak, idazleak... Eta asko izan dira, bestalde, aberastasun hori era batean edo bestean jasotzen aritu direnak, urteen joan-etorriak betiko gorde ez dezan, eta altxor hori galdu gabe denok ikusteko eta jasotzeko moduan egon dadin. Iñaki Perurena da ahalegin horretan murgildu den horietako bat, eta ahalegin horren emaitza da gaur erreportaje honetan aurkeztu nahi dugun Peruharri izeneko proiektua, ametsa, lantegia...

ZER DA PERUHARRI?

Zer den Peruharri? Bada, modu askotan defini liteke: kultur-gune bat; museo bat; parke tematiko bat; euskal kulturaren hainbat elementu elkartu dituen gunea; gure historiaurreari eta historiari begiratzeko talaia bat; harriaren eta herriaren hitzak elkartzen dituen espazioa; harriaren inguruan zerbait egiteko ilusioak ekarri duen emaitza; Iñaki eta Inaxio Perurena aita-semeen izerdiaren fruitua; amets egiteko toki bat; Leitza hobeki ezagutzeko aukera bat... Bertan egonalditxo bat egiten duen bakoitzak,

ziur asko, bere definizio propioa ematen luke.

Peruharri, Leitzako Gorrittinea base-rrian kokatuta dago. Leitzatik Uitz aldera abiatuta, Ozparrunerako bidegurutzea pasa eta berehala, gure eskuineko aldetik ateratzen den pista batek eramanen gaitu bertaraino. Toki eder batean kokatuta, Guratz eta Erasote aldea ikusiko ditugu bertatik, baina oso bertan dugu Leitzako herria bera ikusteko talaia ederra ere. Toki pribilegiatua da, zalantzarik gabe.

Gorrittinea Leitzako baserri bat da, behi-granja bat ere bada bertan, baina gaur



egun, Peruharri bertan dela, hori baino gehiago ere bada. Baserriaren barruan, Perurena aita-semeek egokitutako espazioetan, herri-kirolaren, euskararen eta euskal kulturaren inguruko hainbat elementu ikus daitezke: argazkiak, harriak, herri-kiroletako tresnak, argitalpenak, euskararen inguruko esaldiak eta aipamenak...

Baserriaren kanpoko aldean, berriz, izerdi dezente eginda eraikitako lanak ikus daitezke: 8 metroko eskultura erraldoiak; garai bateko trikuharrien, harrespilen, zutarrien eta bestelakoen erreproduzioak...

Baserritik nahikoa bertan, pista batean gora eginda, lezezulo bat ere aurkituko dugu. Denbora askoan harriz estalita egon ondoren, eta hura aurkitzeko temaren ondorioz, Perurenatarren begietara agertu zen azkenean, eta gaur egun begi asko dira lezea ikusi eta bisitatu ahal izan dutenak. Zuloa non hasten den badakigu, non bukatzen den ez ordea. Pentsatzekoa baita mendi harritsu hauen barrenaldeak zuloz josita daudela, eta leze horrek berak beste inon ere irteera izanen duela. Zer istorio eta zer misterio gordetzen den leze horren memorian ez dakigu ziur, baina ez

dugu baimena eskatu beharrik irudimenari balizko oroitzapen horiek berreskuratzen uzteko.

Honaino, Peruharriren nolabaiteko deskribaketa egin dugu. Peruharri beneran zer den jakiteko, ordea, modurik onena Iñaki Perurenari berari hitza ematea da. Gure begiekin ikus dezakegunaz gainera, irudi horien guztien azpian bai baitago agian soilik hitzez azal daitekeen gogo eta asmo bat. Ea gogo horren zipriztin batzuk, besterik ez bada, harrapatzea lortzen dugun. Honatx, Iñaki Perurenak kontatu diguna.

[illegible]

■ Zer da Peruharri? Nola azalduko zenuke zuk?

Amets bat egia bihurtua. Gure ibilbidean askotan galdetu digute harri-jasotzearen inguruan. Baina ez zenbat kilo altxatzen ditugun, baizik eta zergatik jasotzen dugun harria, zergatik egiten dugun hori... Indarraren ideia ere, horrenbestez, landu egin behar da, eta hori ere egin nahi izan dugu. Eta, bide batez, harri-jasotzailearen irudiko topiko batzuk hautsi nahi izan ditugu. Ez gara pertsona indartsuak besterik gabe. Harri-jasotzaileak fisikaz ere badaki, nahiz eta izen horrekin ez izan.

Harria zergatik altxatzen dugun galde-
tu digutenean, beraz, euskaldunon ohitu-
ra bat dela erantzun dugu askotan, eta ho-
rregatik egiten dugula. Zer eta zergatik
egiten dugun da galdera, eta horren atze-
an badago zer garen jakin nahia ere, eus-
kalduntasuna zer den, esate baterako.
Idea horien, pentsamendu horren, eta ha-
rriaren inguruan zerbait egiteko ilusioa-
ren fruitua da Peruharri. Hor jasota dago,
neurri batean behintzat, egin duguna,
sentitu duguna, pentsatu duguna...

Eta topikoak hausteaz ari garela, adierazgarria da duela gutxi, Markinan egin-

dako topaketa batean, gertatu zitzaiguna: Espainia aldeko zenbait pertsona, enpresari... zeuden bertan, gonbidatuta. Aita-semeak ere han ginen, eta gure erakustaldiaren eta azalpenen ondoren, Sevillako Macarenako batek halaxe esan zidan: “beitu, ordu erdi batean, bizitza osoan euskaldunen inguruan sortu eta sinetsi nituen klixee guztiak hautsi dizkidazu”.

■ Noiz piztu zen ideia hau zure gogoan? Ideia hutsetik gaur ikus dezakegun honetarainoko ibilbideaz, zer nabarmenduko zenuke?

Sei bat urteko lan fisikoa dago hemen. Sei urte hauetan eraiki dugu hemen begiz ikus daitekeen hori guztia. Hemen eskabadorak sartu dira, hormigoi asko sartu da, lan asko dago egina, osinak eta garbitu dira... Lehen zeuden hiru zekorretatik bat gelditzen da orain hemen, eta diru hori Gorrittinean egin dugun proiektu honetan sartu da.

Idea, berriz, lehenagotik daukagu bu-
ruan. Hasierakoa ametsa izan zen, ilusioa,
eta ondoren, semeak eta biok hemen utzi-
tako orduekin eta izerdiarekin, ametsak
forma hartu du, gauzatu da, eta egia bihur-

tu da. Planorik ez genuen, nola aterako zen ere ez genekien oso garbi, baina ekin gunion eta gaur hemen dugu emaitza.

Harri-jasotzeko lanean, adibidez, gure laguntzarik handiena gu ikustera etorri den jendea izan da, eta deitu gaituztenak. ETB ere bai, bere bitartez hainbat tokitara iritsi delako harri-jasotzea. Gorrittinea proiekturako, berriz, gu geu aritu gara. Lan eta izerdi ugari egin dugu hemen, eta ekonomikoki ere koste handia izan du ideia honek.

■ **Eta lan horren guztiaren atzean dagoen ideia, pentsamendua, ilusioa, nondik etorri da? Zerk eragin du?**

Egia esan, azken aldi edo urte hauetan, Peruharri proiektua egiten eta sortzen ari-tu garen bitartean, historiari, Nafarroako historiari bereziki, oso lotuta aritu naiz, liburuak irakurtzen-eta. Oso idazle opa-roak eta liburu interesgarriak argitaratu dira. Eta une jakin batean, gure historiako pertsonaiaren batengandik ere, edo haren jokabide eredugarritik, hartu izan dut in-darra eta kemena aurrera egiteko. Pedro Nafarroako azkeneko Mariskalaz ari naiz. Horren adierazgarri da Peruharrin bertan eraikitako haren irudia.

Orain, nolanahi ere, uste dut hori baino ikuspegi osoagoa ere izan dezakegula. Historia hori hor dago, baina gure inguruari eta errealtateari ere beste era askotan begiratu diezaiokegu. Lehengoan Beordainera joan nintzen, eta Gorrittinea ikusten nuen handik. Herritik etorrita ere ikus daiteke, baina beheko aldetik. Gorrittinea toki berean dago, bat bakarra da, baina nondik begiratzen zaion, modu ezberdinetan ikus daiteke. Berdin gertatzen da gure lanarekin, herriarekin, nortasunarekin, kulturarekin...

■ Norentzat egin duzue Peruharri? Ba al du hartzaile jakinik? Edo, bes-





te era batean esanda, zertarako egin duzue?

Peruharri ikusi nahi duenarentzat egin dugu. Gure izatearekin eta euskalduntasunarekin lotutako hainbat elementu daude hemen, eta horiek ikusgai jarri nahi genituen, hori ikusteko interesa duenarentzat. Euskalduntasunaren, harri-jasotzearen... erakusgarri gisa gure altxoa jarri nahiko genuke. Lortuko bagenu hona etorri den pertsona, aldapan behera jaisten denean, zerbait pentsatzen joatea, zer pentsatua izatea, nahikoa izanen litzateke. Etorri eta, besterik gabe, tartetxo batean hemen gustura egotea ere ez da gutxi.

Jende ugari etorri da dagoeneko lan hau ikustera: kazetariak etorri dira, herri-tarrak, eskoletako ikasleak, ikastoletako arduradunak, atzerriko jendea, bestelako erakundeetakoak... Herritarrei erakusteko, leitarrei eta kanpokoei, eta lan hau haiekin konpartitzeko borondatea ere badago honen atzean. Hori nola egin dezakegun edo nola egingen dugun da oraingoz zehaztuta ez daukaguna.

Museo bat egiteko aukera hor dago, esaterako, eta askotan esan digute. Baina zaila da, eta instituzioen laguntzarik edo nolabaiteko parte-hartzerik gabe ezin da egin. Guk, jakina, atek ez dizkiogu inori itxi. Nolanahi ere, hau museoa bihurtzea ere ongi pentsatzeko kontua da, izan ere, hau gure baserria ere bada. Eta, bestalde, museoa eginez gero, eta horrek dakartzan korapilo eta adar burokratiko eta administratibo guztiekin, proiektua bera agian ez litzateke gauza bera izan.

Aterabidea? Guri egindakoa erakustea gustatuko litzaziguke, baina beste aldetik ez da erraza erakusteko bidea eta modu hori antolatzea. Ez da erraza, adibidez, hemen inor modu finko batean egoitea baserria erakusteko.

■ Eta zer aurkituko dugu Peruharrin?

Peruharrin gauza asko dago. Esan izan ditate harriarekin akaso nahikoa zela, bide edo gai hori hartu eta hori eutsi beharko geniokeela, hainbeste elementu sartu gabe. Hemen harria dago, baina baita euskara ere, eta beste hainbat gauza: harri-jasotzea, herri-kirolak, historia, historiaurrea, hizkuntza, gogoeta...

Barruan, esaterako, harri-jasotzean egin dugun ibilbidea ikus daiteke. Hasierako harriak, errekorak, erakustaldiak, argazkiak... Baita ere, beste espazio batean, nafartasunaren, euskalduntasunaren, gure historiaren eta izatearen inguruko hausnarketak, idatziak, mapak eta bestelako adierazgarriak. Lehen esandakoa, harri-jasotzetik abiatuta, indar horren atzean dauden hainbat gogoeta eta pentsamendu ere jaso nahi izan dugu.

Bestalde, kanpoan, beste hainbat elementu ikus daitezke. Esate baterako, hiru indar sinbolizatzeko eraikitako figura handiak. Alde batetik, mitologiaren indarra adierazten duen besoaren figura. Bestetik, harri-jasotzailearen eta jentilen indarra adierazten duen figura handia. Eta, horien ondoan, pertsonaren indarra, hitza eman eta betetzen duen pertsonaren indarra biltzen duen figura, Nafarroako Pedro

Mariskalarena hain zuzen. Azken horrek hiru harri dauzka ondoan: Amaiur, Hondarribia eta Noain, gure historiako hiru mugarri edo gertakari.

Eta badira, bestalde, harrespilak, trikuharriak, aitaren omenez egindako figurak... Txapel baten figura ere badugu, txapela oso elementu propioa izan delako euskaldunontzat, eta txapela erabiltzeko modu propioa izan dugulako euskaldunok. Gure aita ere horrela gogoratzen dut, beti txapela jantzita. Eta euskalduna, esaterako, zerbait irabazten duenean, "txapelduna" da.

Orain esku bat eraikitzen ari gara, eskuak berak, ikur gisa, eta baita hizkuntzaren aldetik ere, esanahi handia izan dezakeelako. Oteizak, esaterako, eskua euskarekin lotzen zuen ("eskuera"). Eskatu, eskaini... Oso interesgarria da hitzen barruan arakatzea. Harria hitza bera, "har" erroak duen esanahia, eta beste hainbat hitzetan izan dezakeen esanahia (behar, bihar, arrano, izar, Atarrabi...). Herria bera, herriaren ideia, hizkuntzarekin lotuta dago, hizkuntzarekin batera sortu zen herria...

Tira, horiek eta beste hainbat kontu esan dizkigu Iñaki Perurenak. Harri-jasotzailearen indarraren atzean beste zerbait dagoela ikusi eta ikasi nahi duenak, Peruharrira etorri edo Iñakirekin solasalditxo bat edukitzea nahikoa izanen du horretarako. Harri handiak altxatzen eta mugitzen ditu Iñakik, ideiak eta hitzak altxatu eta mugitzen dituen bezalaxe. Eta Peruharri da, hain zuzen ere, horren guztiaren emaitza, fruitua eta erakusgarria.

Leitzako euskararen hiztegia

Leitzako euskara, gutxi asko, aldatzen ari da azken urteotan. Euskara batuko hitz asko ekarri ditugu gure eguneroko hizkerara, eta bertako beste hainbat pixkanaka galduz doaz. Normala da, neurri batean saihestezina.

Hala ere, bizi-bizirik jarraitzen du oraindik ere bertakoak, eta estimatua da leitzarren artean. Estimatzear gainera, noraino ezagutzen dugun jakiten lagundu dezakeen probatxo bat proposatuko dizuegu. Leitzako hitz batzuk,

edo Leitzan erabiltzen diren edo erabiltzen ziren hitz batzuk jarriko ditugu jarraian, eta baita bakoitzaren ondoan hiru esanahi. Horietako bat zuzena da, eta beste biak asmatuak. Ea zuzena zein den asmatzeko gai zareten.

Hitzok Mikel Olanok egindako *Aio, Leitze* hiztegi ederretik hartu ditugu. Aletxo batzuk besterik ez dira. Hantxe dauzkazu, liburuan alegia, nahi izanez gero, hauen antzeko beste asko, haien esanahiak eta hainbat adibidek lagunduta.

1.- Anikote:

- A)** XX. mendearen hastapenetan galdutako jokoa, hockeyaren antzekoa.
- B)** Anixarekin egindako koktela, ospakizun berezietan edaten zena.
- C)** Lizarrak moarratzeko erabiltzen zen tresna berezia.



2.- Ankalepoka

- A)** Umea bizkarrean hartzeko era bat, bi oinak ermalearen bular aldera jarrita.
- B)** Anka leporaino altxatzen duen ezpatadantzariar ari garenean erabiltzen den hitza.
- C)** Leitzako judo-eskolak asmatu zuen teknika sonatua.

3.- Asmalak esan

- A)** Garai batean Leitzan bizi ziren musulmanek egiten zituzten otoitzak.
- B)** Burura etorri adina irain bota, asma ahalak esan.
- C)** Asmakizunetan jostatu.

4.- Astopastilla

- A)** Astoaren gaitzak sendatzeko botika generikoa.
- B)** Autoarekin herriko kaleetan barna ziztu batean ibiltzea.
- C)** Astoaren gorotz alea, itxura txapalekoa izaten baita.



5.- Balekebale

- A)** Umeari, harrotuegi eta pelma antxa dabilenean, esaten ohi zaiona.
- B)** Badaezpada ere.
- C)** Autotxoketan 10 bidai egiteko balio duen txartela.

6.- Bekatxu

- A)** Begi ertzean sortzen ohi den pikor ttiki eta gorriune mingarria.
- B)** Juramentu baten hasiera, damuak etena.
- C)** Bekatu txikia.



7.- Beleno

- A)** Pozoia.
- B)** Bele ttikia.
- C)** Belen emakumezko izenaren maskulinoa.

8.- Berdentzabart

- A) "Mekaguenlaletxe" Leitzako euskaraz.
- B) Atzokoaren aurreko gaua.
- C) Belarretan hasteko garaia.

9.- Enasa

- A) NASA erakundearen helbide elektronikoa.
- B) Txukuna.
- C) Zikina.

10.- Biztarri

- A) Sukarria, su pizteko harria.
- B) Bizarra egiteko harria.
- C) Hilarriaren aurkakoa.

11.- Bonbollo

- A) Garai batean umeek jaten zutena, *bollicao*-aren parekoa.
- B) Burbuila.
- C) Kolpe batek eragindako hantura.

12.- Botixe

- A) Ura hotzik gordetzeko buztinezko ontzi biribila.
- B) Aurrerako futbolari gazteenek erabiltzen dituzten oinetakoak.
- C) Haur hizkeran, botika edo sendagaia.

**13.- Burko**

- A) Afganistango emakumeek burua estaltzeko erabiltzen duten zapiaren bertsio leitzarra.
- B) Lagun arteko giroan urkoari egiten zaion burla ttikia.
- C) Burukoa, oheburuan erabiltzen den kuxina.

14.- Eltzabor

- A) Artzainen perkusio tresna.
- B) Eltzarako gordetzen diren xaborrak.
- C) Arrantzaleek elkarri abisua emateko erabiltzen zuten musika tresna.

15.- Enantzu

- A) Lantegi baterako trebetasun handia.
- B) Eskulanetarako baldarra.
- C) Alferra.

16.- Enpoa egin

- A) Asetu arte jan.
- B) Mus jokoan, aurkariaren erronkari eutsi.
- C) Inoren aurkako madarikazioa egin.

17.- Epurpoto

- A) Epuru adarrez egindako potoa.
- B) Pixontzia.
- C) Poto ugari egiten duen bertsolaria.

18.- Erreiñu

- A) Itzala.
- B) Erresuma.
- C) Erregearen koñatua.

**19.- Erretolike**

- A) Erreduraren aurkako botika naturala.
- B) Hasarre dagoen pertsonaren hitz-jarioa.
- C) Gazteek garai batean edaten zuten konbinatua.

20.- Gaztala

- A) Kaloria gutxiko gazta.
- B) Mendebaldeko haizea.
- C) Gazteluko gunerik altuena.



Duela 15 urte

Atzera begiratzea ariketa ona izaten da askotan. Egia da, bai, aurrera begira bizi behar dugula, baina bataz ez du bestea kentzen. Nostalgia eta atzokomin hutsean erori gabe, gogo atzera eraman eta duela urte batzuk zertan ari ginen begiratzea interesgarria izan liteke.

Ez dugu oso atzera joan nahi, ordea, esanen ditugunak gehientzuna ezagunak izatea nahi dugulako. Ziur asko, kontu ezagunak izan arren, garai hura bizitu zuten askok “hara, ahaztua neukan” edo antzeko zerbait esanen dute. Beste batzuk, berriz, gazteagoak direnak, agian harrituta geldituko dira.

Beno, sortzen zaigun sentsazioa dena dela, duela 15 urteko kontuak gogoratzea gutxienez interesgarria irudituko zaizuela espero dugu. Horretarako, 1994. urtean gertatutako hainbat kontu ekarri ditugu artikulu honetara.

Jakina, beste kontu asko gertatu ziren orduan, eta guk horietako batzuk hautatu ditugu. Gutxi batzuk besterik ez, ezinbestean, espazio asko beharko genukeelako bestela. Nolanahi ere, orduko berri gehiago errepasatu nahi dituenak, IZAGA zerbitzu taldeak argitaratzen duen prentsa-bildumara jo dezake. Guk geuk ere hortik atera dugu jarraian ematen dugun informazio guztia. Prentsa-bilduma hori, edonoren esku, Leitzako liburutegian aurki dezakezue.

“KUBA LEITZARA” ASTEA, KULTUR TALDEAK ANTOLATUTA

Otsailaren 1etik 6ra bitartean Leitzako Kultur Taldeak “Kuba Leitzara” astea an-



Urruti dago Kuba, baina elkartasunak hurbiltzen gaitu.

tolatu zuen. Gisako ekitaldi bat antolatzen zen lehendabiziko aldia zen, eta horrek duen arriskua asumitu zuen Kultur Taldeak. Ongi atera zen kontua, ordea, eta taldekoak ere pozik gelditu ziren. Eta zer da egin zutena? Honatx laburpena:

- Karrape Irratian, aste guztian zehar, Kubari buruzko programa bat, 12:30etik 13:00etara. Larunbatean, denak errepi-katuta, programa berezia osatu zuten.
- “Kuba diapositibetan” emanaldiak.
 - “Asteartean gaztetzontzat liburutegian.
 - “Asteazkenean adinduentzat jubila-tuen elkartean.
 - “Ostegunean goi-zikloko ikasleentzat.
 - “Ostiralean Aurrera Elkartean de-mentzat. Ondoren “Kuba, mitoa?” solasaldia, brigadista izandako bi lagunekin.
- “Mojito gaua”, larunbatean, eta Kuban izandako leitzarren arteko afaria.
- Igandean “Gran Ballet de la Habana” taldearen emanaldia.
- Argazki eta materialen erakusteta Au-rrera elkartean.

- Garbiketarako eta eskolako materiala biltzea.

ZABORRA BIRTZIKLATZEAREN HASIERA

Gaur egun ohituta gaude za-bor-edukiontzi ezberdinak ikusten eta erabiltzen. Baina, jakina, ez da beti horrela izan. Birtziklatzeak, hain zuzen, 15 urteko historia dauka gure he-rrian. Ttipi-TTapako 1994ko otsailaren 3ko zenbakian, hi-tzez hitz, berri hau eman zuten:

“Zakarrontzi urdinak birzikla daitezke-en produktuentzat”

Hemendik aurrera, hiru leku desber-dinetara bota behar ditugu zakarrak. Berrreskuratu ezin ditugun hondakinak (janariak, pixoihalak), kontenedore ber-deetan botako ditugu. Berreskura daitez-keen produktuak berriz, edukiontzi urdi-netara botako ditugu (paper eta kartoi garbia pakete moduan loturik eta laton-tziak, brik ontziak, plastikozko pote eta botilak, boltsa berean sarturik). Beira edo kristala, orain arte bezala, edukion-tzi berezietara botako dugu.”



Birtziklatzeak baditu, dagoeneko, 15 urte.



Azkeneko 15 urteotan populazioa jeitsi egin da.

PERURENA ETA SARALEGI BERTINDUTA, 320 KILOTAN

1994ko otsailaren 5ean Iñaki Perurenak 320 kiloko harria altxatu zuen. Mieltxo Saralegik ere altxatuta zeukan lehenagotik ere, eta une horretan biak berdinduta zeuden errekorrean. 37 urte zeuzkan orduan Iñakik, eta 26 Mieltxok. Batek lehenagotik hasita zeukan bidea, eta besteak geroxeago ekin zion. Urte horretan, 1994an, bien markak berdinduta zuden, eta Leitzako herriak berak ere harri-jasotzean marka nabarmena utzi duela esan liteke. Izan ere, adierazgarria eta harrigarria ere bada bi harri-jasotzailerik indartsuenak herri berekoak izatea.

SU TA GAR TALDEAREN KONTZERTUA

15 urte joan dira Su Ta Gar taldeak Leitzan kontzertu hura egin zuenetik. Ez dakigu orduan han izan ziren entzule edo ikusle gehienek kontzertuetara joaten ja-

rraituko duten, baina taldeak berak kontzertuak ematen eta diskak grabatzen jarraitzen du. Martxoaren 26an izan zen emanaldia, eta Su Ta Garrekin batera Lin Ton Taun eta Bizkar Hezurra taldeak aritu ziren, biak ere dagoeneko desagertuak. Kontzertua Torrearen irekierarekin lotuta antolatu zen, proiektu horri bultzada bat emateko, eta jende asko hurbildu zen bertara, bost orduko emanaldiaz gozatzeko.

1994. URTEAREN HASIERAN LEITZAK 3.140 BIZTANLE ZEUZKAN

Ttipi-ttapa aldizkarian Joseba Azpirozek egindako kronikak argitzen digunez, urte hasieran Leitzak 3.140 biztanle zeuzkan, 1993.ean baino 29 gutxiago. Gaur egun, gogora dezagun, Leitzak 2.876 biztanle dauzka, orduan baino 264 gutxiago, hain zuzen ere. Zer pentsatua ere eman behar liguke horrek. 1994ko biztanle kopuru

horri dagokionez, 0-19 urteko biztanleak kopuru osoaren % 31 ziren; 20-39 urtekoak ere % 31; 40-59 urte bitartekoak % 24; 60-79koak % 12, eta 80 urtetik gorakoak % 12. Jesusa Lazkano zen, une hartan, herriko zaharrena, 93 urterekin.

LEKUNBERRI ETA LEITZA BITARTEKO AUTOBIA ZATIA IREKI ZEN

Autobiaren inguruko gatazkak arrasto sakona utzi zuen eskualdean, baita Leitzan ere. 15 urte joan dira Lekunberri eta Leitz bitarteko zatia zabaldu zenetik. Uztailaren 13an izan zen irekiera ofiziala, nahiz eta hasiera batean uztailaren 1ean irekitzeko asmoa zegoen. Nolanahi ere, autobia ireki eta astebetera itxi behar izan zuten, Azpirotz inguruan harriak erortzen baitziren autobiaira. Eroritako harriek ere istripuren bat eragin zuten, Maria Arretxe leitzarrari gertatu zitzaiona, esate baterako.



Gaur DBHko Institutua dugu herrian, garai batean Lanbide Eskola genuen.

LEITZAKO LANBIDE ESKOLA

1994ko apirilaren 7ko Ttipi-Ttapan Leitzako Lanbide Eskolaren inguruko datu hauek eman zituzten:

- Ikasle kopurua: 131
- Espezialitateak:
 - Administrarritza 19 ikasle
 - LH. 2 24 ikasle
 - Modulo I 15 ikasle
 - IEE/REM 73 ikasle
- Hizkuntza:
 - Euskaraz 58 ikasle
 - Erdaraz 30 ikasle
 - Bietan 43 ikasle

LEITZAKO KROSAREN XVI. EDIZIOA

Apirilaren 10ean egin zen Leitzako krosa, Aurrera Elkartek antolatuta. 2 kilometro eta erdiko ibilbideari buelta bat eman behar zioten 10-12 urteko korrikalariak, bi buelta 13-15 urtekoek eta emakumeek, hiru buelta 16-18 urtekoek eta beterranoek, eta 4 buelta senior mailakoek. Izena emateko 500 pezeta (oraingo 3 euro) ordaindu behar izan zituzten 16 urtetik gorakoek. Emaitzei dagokionez, hona hemen horietako batzuk: emakumeen artean, Rosi Talaverak irabazi zuen, eta Mila Saralegi izan zen lehendabiziko leitzarra. Gizonezkoen kategorian, Joserra Insaustik irabazi zuen, eta Angel Mingiagak eraman zuen lehendabiziko leitzarri zegokion saria. Beterranoetan, berriz, Tomas Alduntzin izan zen lehenda-

bizikoa. Emakume beterranoen lasterketan Lourdes Armendarizek irabazi zuen, eta leitzarren artean lehenengoa Juli Sagastibeltza izan zen.

UEMA EGUNA LEITZAN EGIN ZEN.

1994ko maiatzaren 23an UEMA EGU-NA egin zen, eta orduko edizioa Leitzan antolatu zen, hain zuzen ere. Egun garrantzitsu horrek Leitzako kultur astearekin bat egin zuen, eta aste horren egitarauan integratu zen. Bi zati nagusi izan zituen egunak: alde batetik, ekitaldi ofiziala, eta bestetik, ekitaldi irekiak eta herrikoiak. Ekitaldi ofizialean UEMAren ordezkariak, udal ordezkariak eta alderdi politikoen ordezkariak (EA, EAJ eta HB) parte hartu zuten, eta Urdiango Udala ere ofizialki UEMA sartu zen. Alderdietako ordezkariak (Karlos Garaikoetxea, Jose Luis Etxegarai eta Joseba Alvarez) hitzarmen bat sinatu zuten, UEMAren proiektua bultzatzeko. Ekitaldi ofizialaren ondoren, plazan beste ekitaldi ireki bat egin zen, eta bertan eman zen UEMAren eta alderdi politikoen mezuren berri, Estitxu Arozena eta Bittor Eliazgoien bertsolariek lagunduta. Ekitaldiaren ondoren, kultur asteko egitarauarekin bat eginda, bazkaria eta pesta.

1994. URTEKO PESTAK

1994ko pestak gogoratuko dituenik izanen da, ziur asko, arrazoi bat edo beste dela medio. Norberak jakinen du handik

zer gogoratzen duen. Guk, hemen, orduko egitaraua nolatsu osatu zen gogoratu-ko dugu, oroitzapenak aktibatzen nahi-koa izanen delakoan.

Orduan ere, pestak hasi baino lehen, programaren errepartoa egiten zen, eta baita umeen eguna ere. Umeen egunera-ko, hain zuzen, honakoak antolatu ziren: goizeko 8etan diana; 9etan zaldi txikiak gazteentzat. 11:30ean umeen arteko partidak eta 12:00etan jokoak. Arratsaldeko 4etan txirrindulariak ibili ziren herrian barna, eta 5,30etan zaldiak eta zezen txikiak berriz ere. Dantzari txikiak aritu ziren ondoren, eta baita herriko trikitilariak ere. 20:30etan, berriz, Artadi txarangako- en txanda izan zen, eta gaueko 9etatik aurrera Maixa, Itziar eta Garbiñe trikitilariena.

Pestetako egitarauari dagokionez, honakoak egin ziren:

- **Abuztuak 10:** Jubilatuen bazkaria; ez-kila-jotzea eta etxafuegoa botatzea; kalejira txistulariekin, Artadirekin eta buruhandiekin; dantzaldia Gaubela taldearekin.
- **Abuztuak 11:** Diana; entzierroa eta zezenak plazan; meza nagusia; ezpatadantzariak plazan; pilota partidak; zezenak plazan; bertso-saioa plazan (Lizaso,



Egaña, Murua eta Arozena); dantzaldia Gaubela taldearekin.

- **Abuztuak 12:** Diana; entzierroa eta zezenak plazan; herri-kirolak: Perurena, Saralegi, Gibitegi eta Goenatxo; zezenak plazan; Aurrerako dantzarien saioa; pilota partidak pilotalekuan; Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
- **Abuztuak 13:** Diana; entzierroa eta zezenak plazan; Irungo akordeoi boskotea plazan; zezenak plazan; parke mugikorra; pilota partidak pilotalekuan; dantzaldia Akelarre taldearekin.
- **Abuztuak 14:** Diana; entzierroa eta zezenak plazan; futbol partida; zezenak plazan; Iruñeko erraldoiak eta gaiteroak; dantzaldia Trakets taldearekin.
- **Abuztuak 15:** Diana; entzierroa eta zezenak plazan; pilota partidak; plater tiraketa; ezkonduen entzierroa eta zezenak; Dantzaldia Basajaun taldearekin.


EUROPAKO PARLAMENTUKO HAUTESKUNDEAK

Ekainaren 13an Europako Parlamenturako hauteskundeak egin ziren. Honakoxeak izan ziren Leitzan orduan jasotako emaitzak:

EAJ: 40 HB: 521 PSOE: 85
PP: 239 EA: 303 IU: 47
Beste.: 28 Txuria: 19 Balioga.: 14
Absten.: 1.145
ZENTSUA: 2.441

ESKOLAKO BOST IRAKASLE KANPORATUAK

Eskolan lau urtez lanean aritu ondoren, Leitzako Ikastolatik zetozen 5 irakasleak kanporatu egin zituzten, 1994-1995 ikasturterako kontratua ez baitzitzaien berritu. Nafarroako Gobernuaren eta Ikastolen Elkartearen arteko akordioaren ondoren, Ikastolako irakasle izandakoek Leitzako eskolan jarraitu zuten lanean. Erabaki horrek epaitegi baten aldeko epaia izan zuen, baina Nafarroako Gobernuak berak errekurritu ondoren, aurkako epaia ematea lortu zuten. Ondorioz, ikasturte



berriaren hasieran irakasle horiek kanpogan gelditu ziren. Irakasleek beren aldarrikapenaren aldeko 540 sinadura bildu zituzten, eta 400 pertsona inguruk parte hartu zuten horren inguruan antolatutako manifestazioan.

BASERRITARREN EGUNA

Urte gutxiren buruan ospatzeari utzi zitzaion, baina zenbait urtez Baserritarren Eguna ospatu zen Leitzan. 1994koa II. edizioa izan zen, Aurrera Elkartek eta Kultur Taldeak antolatuta. Eguraldi eskasa izan zen, baina jarritako helburuak lortu ziren: alde batetik, herritarrek baserritarrei esker ona adieraztea, eta, bestetik, lan egiteko erak, produktuak eta aziendak txukun erakustea, baserritarrek urte osoan zehar egiten duten lanaren adierazgarri gisa.

Horretarako, goiz goizetik hasita, baserritarrek mahai bana jarri zuten Karra-pen, baserriko produktuekin: barazkiak, hegaztiak, banabarrak, azak, porruak, intxaurrak, gaztainak... Behiak jeizteko asmoa ere bazen, baina eguraldiak galarazi omen zuen. Ardiak, zaldiak eta behiak ere, nolanahi ere, ez ziren falta, denek ikusgai jarrita. Talogileak ere han ziren, eta askok hamaiketako bertan egin zuten.

Ikusminik handiena, nolanahi ere, arto zuriketak eta jalkitzeak sortu omen zuten. Bizpahiru baserritako baserritarrak elkartu eta umore onean, kantuz eta bertso-

tan, garai batean egiten zen moduan arto zuriketan eta jalkitzen aritu ziren.


Erakusketaren ondoren baserritarrak elkarrekin bazkaltzera joan ziren, eta Bautista Perurena eta Sorobarreneko nagusia bertsotan aritu ziren.

INTSUMISIOAREN ALDEKO EKITALDIAK

Intsumisioaren aldeko borroka aspaldiko kontua irudituko zaio bati baino gehiagori, gazteenei batez ere, baina ez da hain aspaldikoa ere. Horren erakusgarri, 1994ko azaroaren 18an, 19an eta 20an Leitzako Intsumisioaren Aldeko Taldeak (LIAT) antolatutako ekitaldiak. Ekitaldi horietan honako ideiak agertu nahi izan ziren: kartzela, sakabanaketa eta errepresioa salatzea; gobernua arazoari irtenbide politikoa emateko garaia zela adieraztea; intsumiso presoen askatasuna eskatzea; eta desobedientzia zibila egiteko deia egitea. Horretarako enkarteladak, kotxe-karabana, itxialdia, kalejira eta bestelako ekitaldi antimilitaristak antolatu zituzten. Bestalde, gogoratu behar da Udala bera hiru aldiz epaitu zutela intsumisioaren inguruan hartutako jarreragatik. Azkenik, bitxikeria gisa, gogoratuko dugu urte horretako azaroaren 19an Leitzako 19 gazte zozketatu zituela armadak soldaduska egiteko, eta honako tokiotara joatea "egokitu" zitzaizela: 15 Mendebaldeko eskualdera, 2 Kantauriko eskualdera, 1 Kanariar Irletara eta beste bat Zeutara.

Leitza Pablo Feoren begietan

Marmari aldizkariko aurreko zenbakian atal berria sortu genuen. Leitzari begiratzeko eta Leitza ikusteko modu ezberdinak erakusten saiatuko ginela esan genuen. Luzeren begirada jaso genuen orduan, eta Pablo Feoren txanda izanen da oraingoan. Hemen dituzue, beraz, Pablok egindako zenbait argazki eder, denon gozagarri.



Plazaolako Natur Bidea



Leitzako alde zaharra



Udazkeneko kolore ederrak




Herriko etxeak



Etxe Txuria, Karrapetik

Leitzako zerua
zeharkatzen dutenak

Leitzarrak, umore onean



Leitzalarreko egurrezko zubia



San Juan bezperako sua

Hizkuntzaren jatorria

Denok erabiltzen dugu hizkuntza, egunero. Ahoz, idatziz, eta zernahitarako. Pentsatu, bestela: zer egiten dugu hizkuntzarik gabe? Bururatzten al zaizu hizkuntza erabili gabe egiten duzun deus ere? Hitz egin, pentsatu, amets egin, irratia entzun, interneten nabigatu, ikasi, lana egin...

Oso modu automatikoa erabiltzen dugu hizkuntza, ia-ia esfortzurik edo ahaleginik egin gabe. Baina pentsatzen hasten bagara, hizkuntza gauza harrigarria da, bene-benetan oso konplexua. Hizkuntzak nola funtzionatzen duen, esaldi bakoitzaren azpian zer arau eta erregela dauden begiratzen hasiz gero, berehala ohartuko gara sistema benetan harrigarria dagoela horren atzean. Hain ximplea ematen duenak, sekulako konplexutasuna dauka barruan.

Eta nola sortu ote zen hizkuntza? Hasierako gizakiek, edo hasierako hominido haiek, jakina, ez zuten gaurko hizkuntzaren modukorik izanen. Guk bai, ordea. Nola sortu zen, orduan, gaur erabiltzen dugun hizkuntza hau? Eta noiz sortu ote zen? Eta zertarako? Egin al diozu inoiz horrelako galderarik zeure buruari? Tira. Agian ez zara sekula horrelako gauzetan pentsatzen aritu, baina beste batzuk aspaldi hasi ziren horretan. Hizkuntzaren jatorria aspaldiko interesgunea da, eta, jakina, horren inguruko ideia asko sortu da, baita bitxi askoak ere tartean.

Erantzunik? Oraingoz, erantzun bateraturik eta denok onartutakorik ez dago. Hainbat teoria dago, noski, eta hainbat iritzi. Horietako batzuk ekarri ditugu hona, zuen interesekoa izanen delakoan.

ZERTAZ ARI GAREN

Komeni da, aurrera joan baino lehen, hiz-

kuntzaren jatorriaz ari garenean zertaz ari garen argitzea, eta bereizketa bat egitea. Hizkuntzaren jatorriaz ari garenean, gehienbat hitz egiteko gaitasunaren jatorriaz ari gara, hizkuntza gaitasunaz alegia. Gaur egun munduan hizkuntza ugari dago, 6.000 inguru, tartean euskara bera. Baina ez gara dibertsitate horren jatorriaz ari. Gizakiak hitz egiteko duen gaitasunaren jatorriaz ari gara, eta akaso lehendabiziko proto-hizkuntzaz. Ustez behintzat, gizakiak aurrena hitz egiteko gaitasun orokor hori garatuko zuen —eboluzioaren ondorioz—, eta gaitasun horren ondoren sortuko zituen hizkuntza konkretuak. Alegia, euskara eta munduko gainerako hizkuntza guztien so-


rrera, horren ondoren gertatuko zen.

Artikulu honetan, beraz, gizakiok dugun gaitasun horretaz hitz egingen dugu. Gure burmuinean, hor nonbait, kokatuta dagoen gaitasun horretaz, eta gainerako animaliengandik hain modu nabarmenean bereizten gaituen

horretaz. Egia da animalien artean ere badagoela komunikazioa, haien artean komunikatzeko sistema sofistikatuak ere badaudela, baina ez dira giza-mintzairarekin konparatzeko modukoak.

DAKIGUNA

Ahozko hizkuntzak, idatziak ez bezala, ez du utzi antzinako arrastorik. Horregatik, ezinbestean, beste iturri batzuetara jo behar izan dute zientzialariek hizkuntzaren jatorriaren gainean teoriak egiteko. Zein diren iturri horiek? Erregistro fosila, esate baterako. Fosilen azterketak erakutsi dezake, adibidez, garai bateko giza-kiaren gorputzak eta anatomiak soinu ar-





tikulatuak ahoskatzeko aukera ote zuen. Garai bateko gizakien ohiturek eta jokabideek ere aztarnaren bat eman dezakete; izan ere, teknika eta kontzeptu kultural batzuk transmititzea nekez imajina daiteke hizkuntzarik edo horren antzeko komunikazio-sistema konplexurik gabe. Hizkuntzaren jatorriaren bilaketan, horrenbestez, zientziaren adar ezberdinak elkartu dira: hizkuntzalaritza, antropologia, paleontologia, neurozientziak, biogenetika...

Aipatutako zientzia-adar horietan lortutako datu eta ikerketez gain, usteetan edo hipotesi teoriko hutsetan oinarritutako planteamenduak ere egin dira. Hizkuntzaren sorrerak nolako baldintzak beharko lituzkeen irudikatu dute hainbat ikerlarik, eta baita egoera horretan hizkuntza nola sortu izan zen proposatu ere. Aurreraxeago aipatuko ditugu egin izan diren zenbait hipotesi edo teoria.

Badago, nolanahi ere, hemen egin beharreko beste aipamentxo edo parentesitxo bat: hizkuntzaren inguruan badago aspaldi honetan oso eztabaida sakona eta mamitsua, pentsalari edo ikerlari asko bi taldetan banatu dituen. Batzuek uste dute hizkuntza ikasten den zerbait dela, beste hainbat gauza bezala (bizikletan ibiltzea, adibidez); beste batzuek, berriz, uste dute hizkuntza gaitasuna jaiotzez eta berez burmuinean dugun zerbait dela. Sen bat, armiarmak amarauna egiteko sena daukan bezalaxe. Gure dotazio genetikoan heldu den zerbait dela, alegia. Hiz-

kuntza gaitasuna, beraz, geneetan dauka, eta hizkuntzaren jatorriak, beraz, noizbait gertatutako mutazio genetikoe-kin zerikusia izan beharko luke. Hala baltz, genetikak ere gai hionen inguruko informazioa eta argibideak emanen dizkigu.

Itxi dezagun parentesia, eta eman ditzagun orain hizkuntzaren sorreraz bildu ditugun zenbait ideia. Alde batetik, hizkuntzaren sorreraz askotan aipatu izan diren zenbait teoriaren berri emanen dugu. Esan dezagun, nolanahi ere, teoria horiek gaur egun ez dutela sinesgarritasun handirik. Bere garaian sortutakoak dira, baina zientziaren aurrerapenak indarra eta onarpena kendu die. Eta beste alde batetik, hizkuntzaren jatorria denboran kokatzeko egin diren ahalegin batzuen berri ere azalduko dugu, data horiek proposatzeko dauden arrazoiak ere aipatuta.

Has gaitezen, esan bezala, arestian aipatutako teoriarik ezagunenak ekarriz. Alde batera utzi ditugu, jakina, hizkuntzaren jatorriari azalpen mitologikoa edo erlijiozkoa ematen diotenak.

HIRU TEORIA

Hiru teoria aipatuko ditugu, eta hiruak hona ekartzeko Xabier Monasterioren *Mintzairaren Miraria* (Gaiak argitaletxea) liburua erabili dugu. Hona, hitzez hitz, hiru teoriaren deskribapen laburra.

- *Pooh-pooh theory edo interjekzioen teoria*: Hastapenean gizakiak interjekzio moduko hotsen bitartez adierazten bide zituen bere sentimenduak (beldurra, harridura, mina, poza, haserrea, eta abar), eta hots haien eboluziotik mintzaira sortu bide zen.
- *Bow-bow theory edo onomatopeien teoria*: iritzi honetako ikertzaileen esanetan, izadian entzuten zituen hotsak imitatuz ahoskatu bide zituen gizakiak lehen hitzak. Animalien orroak, uraren murmurioa edo haizearen hotsa entzunda, onomatopeiak sortu bide zituen eta,

haietatik abiaturik, mintzaira garatu. Mintzaira guztietan onomatopeia ugari izateak teoriaren balioa baieztatuko zuen, beraren aldekoen aburuz.

- *Yo-he-ho theory edo elkarlanaren teoria*: hirugarren teoria honen arabera, indarra erabili beharreko lanetan gizakiak elkarrekin aritzearen ondorioz sortu bide zen mintzaira. Lurrera eroritako zuhaitza altxatzerakoan edo ehizatu berria zuten animalia garraiatzerakoan, gizakiek lehenengo hots artikulatuak asmatu bide zituzten, elkarlana antolatzeke. Aurreko teoriak ez bezala, hirugarren honek jatorri soziala aitortzen dio mintzairari.

HIZKUNTZAREN SORRERAKO DATAK, ETA DATAK PROPOSATZEKO ARGUDIOAK

Aipatu ditugu teoriarik ezagunenak. Orain, gaiarekin jarraituko dugu, baina informazioa beste era batean jorratuz. Lehen esan dugun moduan, hizkuntza noiz sortu ote zen azaldu nahi duten hipotesiak ekarriko ditugu, hipotesi haien atzean dauden argudioak lagunduta. Horratx:

Lehenago ere esan dugu: hizkuntza noiz sortu zen ez da kontu argia, eta, noski, ez daude denak ados. Normalean, duela 150.000 eta 500.000 urte bitartean gertatu zela esaten da. Batzuek gizakiaren jokaera edo portaera modernoarekin lotzen dute hizkuntzaren sorrera, beste batzuk Homo Sapiensarekin, eta beste zenbait Neanderthalarekin. Horren arabera, datak aldatzen dira.

Logikoa dirudi lehendabiziko hitzak edo komunikazio-zeinuak oso oinarritzko gauzak adierazteko balio zutenak izatea: ura, jana, arriskua... Gizakiak, bizirik irauteko, ezinbesteko zituen gauzak alegia.

Hala ere, bilakaera horretan ez daude denak ados. Batzuen ustez, gizaki ez ziren primateen bokalizazioaren eta gizakiaren hizkuntzaren sorreraren artean hizkuntza-aurreko edo pre-hizkuntza

modukoren bat egonen zen.

Beste batzuen ustez, berriz, hizkuntzaren sorrera mutazio genetiko batean kokatu behar da, eta nahiko kolpekoa edo azkarra izanen zen. Horien ustez, giza-kiaren jokabide modernoaren hasierarekin lotu behar da une hori, eta orduan gertatu zen mutazio genetiko hori.

ANTZINAKO HOMINIDOAK

Garai bateko hominidoek, gure arbasoek alegia, ba al zuten gaurkoaren antzeko hizkuntzarik? Arituak ez datoz bat. Batzuen ustez, duela 3,5 milioi urte, hominidoak bi hanketan ibiltzen hasi zirenean, gorputzak hainbat aldaketa izan zituen, baita burezurrean, laringean eta traktuan ere. Horiek ezinbestekoak dira gaurko hizkuntzaren pareko zerbaitegiteko. Ikerlari batzuen ustez, Afrikan duela 3,5 milioi urte bizitutako *austrolopithecus* hark nolabaiteko mintzamen-gaitasuna izanen zuen. Beste batzuen ustez, berriz, Neanderthalak berak ere ez zuen oraindik gizaki modernook egiten ditugun soinuak sortzeko beharrezkoa den anatomia. Eta beste batzuen ustez, azkenik, laringearren jaitsierak ez du garrantzirik hitz egiteko garaian. Desadostasuna, beraz, edo ezjakintasuna akaso.

Proto-hizkuntza da askotan erabiltzen den kontzeptu bat, tximu handien eta gizaki modernoaren artean dauden homoentzat proposatu dena. Zer esan nahi du proto-hizkuntzak? Bada, tximu handien hizkuntzaren eta gizaki modernoon hizkuntzaren artean dagoen etapa bat. Ezaugarri jakin batzuk izanen lituzke: ez dauka sintaxi edo joskera erabat garatu edo osaturik; ez dauka denborarik, aspekturik edo aditz laguntzailerik; hiztegi itxirik ere ez. Homo hauen hizkuntza definitzeko (Homo Ergaster-etik hasita Neanderthale-

raino), ezaugarri batzuk proposatu dira, esaterako:

- Manipulatiboa zen: soinuak aginduak edo iradokizunak ziren, eta ez adierazpen deskriptiboak.
- Multi-modala zen: soinuak, keinuak eta mimetikoa.
- Musikala zen.

NEANDERTHALA

Neanderthalak hitz egiten ote zuen eztabaidagaia da adituen artean. Eta nola demontre jakin dezakete hori, pentsatuko dugu askok. Adibidez, aurkitutako fosiletan ikusten denaren bitartez. Gaur egun badakigu soinu edo hots jakin batzuk egiteko ezinbestekoa dela ezaugarri anatomiko jakin batzuk edukitzea, bestela ezinezkoa delako. 2007an aurkitu zen Neanderthal baten hezur hioidea, eta horregatik uste dute gauza zela gurearen antzeko

hotsak sortzeko. Eta beste ikerketa batzuek erakusten dute 400.000 urte atzera go kanal hipoglosala delakoak gaurko gizakion kanalaren tamaina lortu zuela. Adituen ustez, kanal horrek bideratzen ditu seinale nerbiosoak burmuinera, eta haren tamainak hitz egiteko gaitasuna islatzen du.

Baina beste batzuen ustez, ordea, nahiz eta Neanderthalak anatomikoki hitz egiteko prestatuta egon, ez zuten izanen hizkuntza moderno osorik. Zalantza horien oinarria gizaki arkaikoen erregistro fosilean eta haien harritzko tresnetan dago. Ideia horren aldekoek diotenez, gizaki arkaikoen harritzko tresnak oso gutxi aldatu ziren milioika urtetan, eta Neanderthalenak ere ez ziren batere sofistikatuak. Horrek erakutsiko luke haien burmuina ez zela hizkuntzak behar duen bezain konplexua. Eztabaida, nolana ere, irekita dago eta ez dago adostasunik.

HOMO SAPIENS

Gure arbaso hurbilak dira, anatomikoki gizaki modernoak. Ezagutzen ditugun lehenengo fosilak duela 195.000 urtekoak dira, Etiopian agertutakoak. Ez dirudi garai horretako gizakiaren portaeran aldaketa handiegirik zegoenik. Duela 164.000 urte, ordea, Hego Afrikan, aurkitutako ebidentzien arabera, portaera sofistikatuagoa zen, eta portaera modernoak garatzen hasita zeuden. Harritzko tresnak ere espezializatzen eta bereizten hasi ziren, eta finagoak ziren. Horrek erakusten du, besteak beste, harrien lanke-tarako teknika horiek erakutsi egiten zitzaizkiola ondorengoei edo taldeko beste batzuei, eta horrek zaila izan behar du hizkuntzarik gabe.

Hizkuntzaren bilakaeran aldaketarik edo jauzirik handiena honakoa izanen zen: komunikazio primitibo batetik —pidgin itxurakoa—, hizkuntza modernoan gra-



matikara eta syntaxira pasatzea —kreolera itxurako hizkuntza—. Ikerlari askoren ustez hori gertatzeko nahitaezkoa zen burmuinean aldaketa biologikoren bat gertatzea, mutazio bat alegia. Zehazki, proposatu edo iradoki izan da gene jakin batek, FOXP2 izenekoak, mutazio bat izan zuela eta gizakiari komunikatzeko gaitasuna eman ziola. Frogen arabera aldaketa hau duela 100.000 eta 50.000 urte bitarte gertatu zen Afrikako ekialdean, eta erregistro fosilean aldaketa nabarmenak eragin zituen berehala.

Gaur egun, oraindik ere eztabaida-gai dago hizkuntza pixkanaka garatu ote zen, milaka urteetan zehar, edo bat-batean agertu ote zen.

Afrikatik kanpora hipotesiaren arabera, gizakia duela 70.000 urte inguru ateratu zen Afrikatik, eta ez lehenago. Orduan kolonizatu zuen mundua, baita Australia eta Amerika ere, zeinetan ez zen sekula gizaki arkaikorik egon. Homo Sapiensek, zientzialari batzuen ustez, ez zuen lehenago Afrika utzi, kognizio eta hizkuntza modernorik ez zuelako, eta, beraz, ez zuelako migrazioarako behar zituen gaitasunak eta kopurua.

Bestalde, Colin Renfrewek eta beste zenbait ikertzailek Paleolitoaren azkeneko garaian kokatzen dute oraingoan antzeko hizkuntzen sorrera (duela 30.000 urte), orduan garatu baitzen gizakiaren adierazmen sinbolikoa harpeetako artearen bidez. Horrek, haien ustez, hizkuntza orduan sortu zela erakutsiko luke, gizakiaren gaitasun sinboliko guztiak burmuinean lotuta daudela uste dutelako. Nolanahi ere, esan beharra dago gizaki modernoaren adar ezberdinak data hori baino lehenago banatu zirela, eta banatutako adar horiek guztiek hizkuntzaren jabe direla. Beraz, adar horiek guztiak banatu baino lehen sortua behar zuen hizkuntzak.

Historiaurreko aspaldiko garai haietan, aldeak alde, kokatzen da as-

koren ustez hizkuntzaren sorrera, edo hizkuntza gaitasunaren sorrera. Beste kontu bat da, ordea, gaur egun dauden hizkuntza horiek guztiak hizkuntza bakar baten eboluzioa ote diren, edo toki ezberdinetan eta momentu ezberdinetan sortu ote ziren.

Argi gelditu izan da, bestalde, gai honen inguruan ez dagoela erabateko adostasunik, eta zaila dela oso egia zurririk eraikitzea. Metodologia edo teknika berri eta iraultzailerik asmatu ezean, nekez lortuko dugu denboran oso atzera joan eta hizkuntzaren sorrera nola-koa izan zen zehazki eta gutxieneko ziurtasunez jakitea.

Ziurtasun zientifikorik ezean, Octavio Paz mexikarrak gizakiaren lehen hitza era poetikoago batean azaldu zuen, eta guk, artikulua hau bukatzeko, haren aipamena ekarriko dugu hona, oraingoan ere Xabier Monasterioren lanetik hartuta. Honela dio:

“Gutako bakoitzak galdetu diogu inoiz geure buruari zeintzuk izan ote ziren gizakiak esandako lehen hitzak. Igarkizun honen erantzunak filosofiak eta izaerak bezain ugariak dira. Hizkuntzalariak oraindik ere honetaz eztabaidan dabilzan arren, haietako gehienek uste dute espeziearen ahozko lehen adierazpenak hurbilago zudelako garrantzirik, diskurtsotik baino. Gizakia hizkuntzarekin hasi bazen, hizkuntza hots batekin hasi zen. Nola-koa izan zen, baina, jatorrizko hots hori? Harridurazkoa? Beldurrezkoa? Desiozkoa? Pozezkoa? Edonolakoa izanda ere, hari esker gizakiak sexua, lana edota heriotza bezain erabakigarria gertatuko zitzaion zerbait aurkitu zuen: solaskidea. Lehen hitza antzemateko ekintza bat izan zen: aldamenean beste gizaki bat zegoelako mintzatu zen gizakia; aldameneko gizaki horrek berari entzun, ulertu edo erantzuten ziolako hasi zen gizaki izaten; aldameneko gizakiari erreparatu zionean hasi zen gizakia gizaki izaten.

ANIMALIEN HIZKUNTZA

Normalean animalien arteko komunikazioa ez da hizkuntzatzat jotzen. Hala ere, zenbait animalia espezieen hizkuntzek badituzte gizakion hizkuntzen hainbat ezaugarri: dirudienez, delfinak edo izurdeak gai dira elkarri deitzeko, norberaren izena-edo erabiliz.

Aztertu izan da, esaterako, tximuen hizkuntza. Ez dute gurearen parekorik, baina beren dei batzuk egiteko gauza dira. “Vervet tximuek”, esate baterako, 10 bokalizazio ezberdin dituzte. Horietako asko besteei oharren bat edo abisuren bat emateko erabiltzen dituzte. Badute, adibidez, “leopardo-deia edo oharra”, “sugearena”, “arranoarena”... Dei bakoitzak estrategia ezberdin bat abiarazten du. Bestalde, tximu talde bat dagoenean, kume batek deitzen badu, beraren ama harengana jiratzen da; gainerako amak, berriz, kumearen amarengana jiratzen dira, zer egingen duen ikusteko.

Horrek guztiak, jakina, ez du esan nahi mintzamenik dutenik. Ez dira gauza, esaterako, guk egiten dugun moduan hitzak elkarrekin lotzeko edo josteko

MIHIA EDO MINGAINA

Hotsak sortzeko garaian gure gorputzeko zenbait atal erabiltzen ditugu: laringea eta ahots-kordak, esate baterako. Horiez gain, ordea, bereziki garrantzitsua da mihia edo mingaina, horretxan bitartez artikulatzen baititugu, zehazki, hotsak eta fonemak. Nahiz eta mingainaren berezko funtzioa dastamenarekin lotuta egon, milaka urtean eta eboluzioaren ondorioz, mintzamenean ere berebiziko garrantzia hartu du. Hain da horrela, hizkuntza askotan hitz hori bera, mingaina esateko erabiltzen dena alegia, erabiltzen dutela “hizkuntza” esateko. Katalanez, esaterako, hizkuntzari edo mintzairari “llengua” esaten diote. Frantsesez “langue”, gaztelaniaz “lengua”, eta ingelesez “language” edo “tongue” (mihia). Argi dago, argi dagoenez, hizkuntzari dagokionez mihia gorputz-atel garrantzitsua dela.

Leitzakultura.net

Leitzako kultur taldearen web orria

ATARIKOAK

Egungo gizartea nekez ulertu daiteke teknologi berrien itzalik gabe. Izanez ere, haien eragina bazter guzietara ailegatzen da. Noranahi. Hala, nornahiren esku zernahi izan ohi. Nahi izatea, ahal izatea, aise.

Orain dela gutxi amets edota zientzia fikzioa zirudiena errealitate gordina bihurturik daukagu *amaraun* ditxosozkoa dela kausa. Espazio eta denbora mugak, den-denak, gaindituak.

Gauzak horrela, gure hizkuntza eta kultura modernizatzeko eta gaurko garaietara egokitzeko ezinbestekoa dugu teknologien mundura hurbildu eta murgiltzea. Arlo horretan ere, ez dugu ahan-tzi behar, baliabiderik ezean atzean geldituko garela. Baina, aitzitik, erne baldin bagabiltza, beste edozein hizkuntza handik adina indar izan genezake.

Hala, asmo eta burutazio horiek egini, urtebete baino gehiago bazen lana-bes berri horiekiko kezka hori buruan generabiltzala. Mundu globalean geure burua erakutsi eta ezagutzera emateko, derigor ekin behar horri. Aurretik ere blog bat bazen hor egin, baina ez genion behar adinako indarrik ikusten. Gure asmoa zabalagoa baitzen.

Eta horrexegatik, hain zuzen, Leitzako kultur taldeak erronka horri ekin nahi izan dio eta web-gune berezkoa sortu, euskara hutsean eta kultur zein hizkuntzarako aukera eta abantail askorekin.

HELBURUAK

Horrelako proiektu batek epe luzekoa behar du izan, eta helburuak asko eta oso handiak. Baina, hala ere, gehienak lorga-



rriak, lana eginez gero eta laguntza eta koordinazioa lortuz gero. Gu guziong esku dagoke horri bizia ematea, eta webaren etorkizunean sinistatzea. Honatx guk geure buruari ezarri dizkiogun helburuak:

- Gure herriko euskararen garapena sustatzea eta zabaltzea teknologi berrien bidez.
- Herriko euskalkia zabaltzea eta aberas-tea idatziz eta ahoz, eransten ari garen audio eta bestelako artxiboen bidez.
- Jarduera kulturalak jasotzea, gordetzea eta herritar ororen esku uztea: 1979 urteaz geroztikako kultur aste guziak sarean...
- Kultur Taldearen jarduerak iragartzea eta baita herriko gainerako talde guzie-nak ere. Agenda eguneratu eta ekitaldi guzien berri eskaintzea; datak, jardue-rak...

- Herritarren iritzia eta aportazioak jaso-tzea, haiek ere partaide izateko. Galde-tegiak eta abar sarean paraturik.

- Herriko dinamikan eragitea:

- Bertako elkarte eta taldeek Webgunea erabil dezaten eta gurekin lan egin dezaten eremu horretan. Pasahitza eman haiek ere zuzenean lan egiteko; edu-kiak txertatzeko, haien lanen eta as-moen berri emateko...
- Webguneko agendan parte har deza-ten eta beren jardueren berri eman eta zabaltzeko.

EZAUGARRI NAGUSIAK

Atal honetan gure webgunearen ezauga-rririk behinenak azalduko ditugu nahiko modu eskematikoan, gehiegi ez luzatze-ko eta inor ez aspertzeko. Honatx nola-tsukoa duzun leitzakultura.net orria:

- Denen esku dagoen tresna dugu weba. Geure altxor kulturala guzien esku paratzeko. Bide horretan, kultur taldeak egiten dituen ekitaldi guziei buruzko informazioa, irudiak, audioak prestatzen eta sarean paratzen ari gara etengabe.
- Geure mintzoa lehentasunezkoa duena dugu gainera: Euskaraz baino ez da egiten, eta albaiten geure kutsua izanen duen molde batean, hots, etxeko euskarari lehentasuna emanen diona.
- Denek erabiltzeko modua eskaini nahi duena ere bada, gurekin harremana bideratzeko aukera ematen duena. Esan nahi baita, normahi partaide izan litekeena, eta baita laguntzaile eta sortzaileak..., ...hala, herriko talde guziei gonbidapena egin zaie eta berriz ere gogoraziko diegu webgunea osatzen eta egunean izaten laguntzeko.

EDUKIAK

Web orriaren atal guzien birpasa ezin eginen dugu hemen, luze joko bailiguke eta hobeia baita, frankoz, jendeak bertara jo eta bertan ikustea zer dagoen eta. Nolanahi ere, argigarria izan daitekeelakoan axalpen llabur bat eginen dizugu:

- Erdian: berririk berrienak edota nabarmenenak. 3 ekitaldirik berrienak, alegia, gainean ditugunak, ikusgai.
- Eskuineko zutabea:
 - Leitzako kultur Taldeari buruzko informazio orokorra: taldearen aurkezpene, historia laburra eta artxibo historikoak. Horretan 1979az geroztiko programak paratzen ari gara sarean. Oroimen historikoa gogoan hartuta.
 - Agenda: egutegi batean hortxe azaltzen zaigu martxan den hilabeteko zein egunetan zer dagoen herrian modu labur eta errazean.
 - Memoriak: gure taldeak 2008.az geroztik egin dituen ekitaldiei buruzko memoria dokumentatuak.
 - Harremanak: gurekin harremanetan jartzeko tarteak, guri posta bidez idazteko eta guk erantzuteko.

- Galdetegia: antolatzen diren ekitaldi eta jarduera guzien gaineko iruditua emateko atala. Ebaluazioa eta jendearen iritzia zuzena jasotzekoa. Galdera batzuk daude bertan puntuazio bat emateko eta horrezaz gain guri nahi duzuna idazteko tarteak,
- Goiko aldean: modu nabarmen samarrean edo, herriaren argazkiaren azpian:
 - Berriak: webgunearen erdian izan ondoren hona pasatzen dira berri guziak eta horrela atal honetan ordenaturik eta dagozkien artxibo guziekin aurkitzen ahal dituzu urtez urte berri garrantzitsu izaten ari diren ekitaldi guziguiziak.
 - Agenda: agenda oso-oso duzu hemen. Kolorez nabarmendurik jakin dezakezu ekitaldiak noiz izan diren edo izanen diren, nork antolatu dituen, zer izanen den zehatz-mehatz, inguruan ere ekitaldi garrantzitsuak direnean ere aurki ditzakezu...
 - Erretratuak: argazkien atala duzu honakoa. Ekitaldi guzietan edo gehiengotan argazkiak ateratzen dira eta ekitaldi horiei buruzko aipamen llabur batez lagundurik hemen aurkituko dituzu artxibo irudiak.
 - Kuttunak: atal honetan gogoan gordetzea merezi duten artxiboak paratuko ditugu. Oraingoz ipuin lehiaketetako lanak dauzkagu paratuak baina aurreantzean bestelakoak ere erantsi nahi ditugu.
 - Loturak: beste webguneetara jotzeko atala. Gure herritik eta kultur ikuspegitik interesgarri izan litezkeen loturak aurkituko dituzu atal honetan. Jendeak era erraz batez aurki ditzan, konparazio baterako, herriko webgune guzien berri, euskal literaturari buruzko informazioa, musikari buruzkoa, lanari buruzkoa, euskarari buruzkoa...

AMAIERA

Bukatzeraz goazela gauza pare bat adierazi nahi genituzke. Bata, herritarra za-

ren hori geure berri izan nahi baduzu eta herrian zer gertatzen den jakin, bada, ez galdu egokiera eta sar zaitez leitzakultura.net webean eta miatu zoko-moko guziak. Gainera, zerorrek ere aukera bat baino gehiago badituzu gurekin harremanetzeko eta elkarreragiteko: galdetegia guri bidaltzeko, posta elektronikoa nahi duzuna adierazteko, loturak direla edota beste edozer zure aportazioak egiteko aukera... Bestea, horretaz gain zure taldearen edota elkartearen lana gurearekin partekatu, garatu, konpartitu edota tresna horren bidez bideratu nahi baduzu, bada, jarri gurekin harremanetan (guk aurrea hartzen ez badizugu behintzat). Aukera izugarriak daude elkarlanean: agendako kide izan zintezke eta zuen ekintzen berri eman, iragarri, informazio osagarria txertatu, argazkiak paratu...; edukietan atalen bat kudea zenezake eta horrela hainbat eduki eta abar web horren bidez landu eta zabaldu...ah! eta hirugarren gauza bat ere bai: ofizialki aurtengo kultur astean sarean paratu genuen web orria, hilabetea ez dela, eta, zerbitzariak ematen dizkigun datuen arabera bisitari eta interes dezente sortzen ari da ALKE kultur elkartearen webgunea. Atal batzuek 300 bisita ere izan dituzte, beste batzuek 200 bat... Egia esateko oso pozik gaude oraingoz jasotzen ari garen erantzunarekin. Ea horri eusterik badugun, eta pixka-pixka ezagutaraztea eta zabaltzea lortzen dugun.

Bukatzeko, berriz ere errepikatu: gonbidatu nahi dugu herri guzia denona den web hori ezagutzera. Horretarako interneten nabigatu eta gure webera joatea baino ez duzu: leitzakultura.net helbidea paratu zure ordenagailuan eta hortxe izanen gaituzu kide; kultur-kide, herrikide, berrikide, lankide.... Anima zaitez eta sar zaitez gure webean. Eta erabil ezazu, horrela gure herria eta kultura zabaltzen lagunduko duzu eta.

ALKE Leitzako Kultur Taldea



Artisautza azoka

2009ko kultur astea

hamabostaldi kulturala


Duela hilabete batzuk kultur astea zirriborratzen hasi ginenean, betikoan geunden. Alegia, aurreko urteetako eskemaren arabera astebete antolatzeko asmotan ginen. Alabaina, alajainkoa, bi aste atera guri, atzenean. Edo hobeki esan 15 eguneko astea. Nola, ordea?

Bada, hagitx erraza. Bateko, kontuan hartu behar dugu Leitzan talde eta jende franko dagoela antolatua, kultur alorrean edo, nolabait. Eta bakoitzak bere esp-

rruan lanean arikio, eta, kultur asterako proposamenak ere egin egiten, eta, horixe, astebeteko formatuan ez sartzen atzenerako, inola ere, proposatutako ekintza guztiak. Horretan ere, jende kopuru izugarriak izan gabe izanagatik, handitasuna aipatu behar gure herriarena. Eta hori go-goan izan behar, nahi eta nahi ez. Talde horien guztiak lana goraipatu eta eskertu nahi dugu, deus baino lehen. Besteak beste, hauek izandu ditugu 2009ko kultur aste talde ko-antolatzailerak: Aurrerako

Mendibil mendi taldea eta pilota eskola, Torrea, Peritza, Udala, Gazte Asanblada, Bilgune feminista, Gizarte zerbitzua, Perurarenarrak... Horratx, bada, hamabostaldia izanaren arrazoi nagusia. Baina ez bakarra.

Besteko, gure herria txikia izaki, handia behar du kultur astea eta kultur programa, gure iruditurako, behintzat. Gurea bezalako herri txiki batean kultur ekitaldiak urriak-edo izaten baitira, eta, hortaz oharturik, gure taldean herritar guzienga-



Dindaiaren xamariko jolasak

na hurbildu nahi izandu dugu zerbait intersegarria eskaintzera. Kultur astearren baitan guzien gustuko plateren bat izan zedin nahi baikenuen. Kosta ahala kosta. Eta ekitaldi batzuetan jende kopuru handirik ez bada ere, lehentasuna aniztasuna dugu guk. Kontua ez baita, kultur esparruaren barnean, ekitaldietara doan jende kopurua, baizik eta kultur eskaintzaren aniztasuna, garrantzia eta kalitatea. Eta hori, jakina denez, kantitate hutsak ez du ematen. Ez horixe.

Ikuspegi hori oinarritzat hartuta aritu gara lanean, eta ez dugu ahaztu behar zenbait alditan, presak eta zamak estuturik, ezin izandu dugula herriko talde antolatzaile horiengana guziengana jo, ezta herritarren aniztasunari erantzun ere. Barka diezagutela, dagokigun heinean. Eta, komeni zaigunez, aipatu bezala programa aberatsa egitea, bada, eginahalak eta bi egin ditugu herrian zer esana eta eskainia duten guziek gurekin batera lanean ari zitezen. Maiatzean ez baita txantxeta-

ko erronka izaten kultur astekoa. Bada, hain zuzen ere, horixe egin nahi izandu dugu aurre bereziki, eta, neurri handi batean lortu, gure uste apalean, behinik behin: antolaturik egon eta lagundu nahi zuten guziekin koordinatu, elkartu, gaiak landu eta programa osoago eta ederrago bat prestatu, ekitaldi askorekin kantitateari dagokionez, eta jarduera oso desberdinekin, izaerari dagokionez.

Ibili eta buelta, hagitx aberatsa eta txalogarria izandu da herriko talde guziakedo, maiatzeko kultur astean kulturaz blai eta buru-belarri lanean sumatzea. Izanez ere, gu taldean 6 lagun baino ez baikara, eta gehienek bestela ere nahikoa lan badugunak. Baina, esan bezala, ez gaituzue bakarrik utzi. Makina bat lagun aritu zarete lanean, gogotik aritu ere. Eskerrak zuei, koantolatzaileei, eta lagundu duzuen herritar guziei! Horretaz gainera, urtero bezala beste herritar askok ere lagundu digute: dendeak, enpresa txikiek, taberneak, ...

HONATX 2009KO KULTUR ASTEKO LAGUNTZAILEAK:

- Aranberri anaiak
- Leiza Mandriladora
- Imelda Larraza
- Bi Lagun
- Kapritxo
- Zinebank
- Arakindegia
- Denontzat Mertzeria
- Artola Sagastibeltza
- Melo Margoak
- Urkiola Harategia
- Plaza Aseguruak
- Belar denda
- Arzallus harategia
- Ireber Tailerrak
- Beatrizenea taberna
- Leitzako gasolindegia
- Iratxe Maldaerreka
- Ariztimuño eraikuntzak
- Maria Zabaleta
- Etxe Tresnak
- Lorea ileapaindegia
- Gaztetxo
- Leitza Garajea
- Eroski Iruña
- Maimur
- Garbi Drogeria
- Gaztelu Iturgintza
- Ohiana Erbiti botika
- Torrea Taberna
- Aritzela
- Seikide
- Perurena harategia
- Sagasti jatetxea
- Peritza taberna
- Txoko taberna
- Aurrera Kirol Elkarte
- Leitzako Udala
- Herriko liburutegia
- Gazte asanblada
- Bilgune feminista
- Talogileak
- Gizarte Zerbitzua
- ...

Zerrendan akatsen bat izan liteke. Ohartuz gero, barkatu eta jakinarazi, mesedez.



Xamariko jolasak



Ahozko ondarearen bilketaren aurkezpena



Igandeko artisautza azoka

Atal honi amaiera emateko aipamen bat bai egin nahi dugula laguntzen gaine-an: krisiaren ondorioz nonbait aurten herriko laguntzaileen artean beherapen aipagarria nabaritu dugu. Dena dela, saiatzen ari gara diru afera hori, alegia, orain egin beharreko ordainketak, bestelako bide batzuen bidez moldatzen edota arintzen; Udala, laguntza instituzionalak... Bestela, oraindik laguntzarik eman ez dutenei gonbitea egiten diegu, idatzi honen bidez, datozen ekitaldietarako laguntza eman dezaten. Horien guzieren zerrenda eguneratua zabalduko dugu, gure web orriaren bidez eta eskutitzen bidez...

KULTUR ASTEAREN BALORAZIO KUANTITATIBOA

Aurreratze aldera, aurtengo programa aztertzeari ekinen diogu orain. Lehenik eta behin, balorazio kuantitatiboa egingen dugu. Aurtengo kopuruak oso adierazgarri eta esanguratsuak baitira, inondik ere.

Honatz daturik garrantzitsuenak:

- Hitzaldiak: 11 (historiaz, janariaz, euskal jantziez, adopzioaz...)
- Haur eta gaxtetoentzako ekitaldiak: 5 (antzerkia, jokoak, grafitia...)
- Antzerki lanak: 4 (haurrentzat, helduentzat, genero indarkeriaz...)
- Dantza kontenporanea: saio bat.
- Musika kontzertuak: 7 (rocka, folka, euskal musika, organoa...)
- Tailerrak: 5 (grafitia, arropa atontzen...)
- Otorduak: 4 (gazte bazkaria, mendi taldekoena...)
- Erakusketak: 2 (adopzioaz, oleo erakusketa gaztetxean...)
- Ibilaldiak: 2 (mugarrien bigarren itzulia)
- Artisau azoka: 50 bat posturekin.

Esaten egiten baino errazagoa da hori guzia. Eta gainera ekitaldi horietako askoren izaera berritzailea eransten baldin badiogu horri guziari, bada, balio erantsi nabarmena duela esan behar aurtengo kultur astearen gainean.

BALORAZIO KUALITATIBOA

Balio erantsi eta berezko horretaz ohartarazteko, ekitaldien aipamen llabur bat egingen dugu orain.

- Maiatzaren 18an hasi zen kultur hamabostaldia ofizialki, arratsaldeko 19:00etan liburutegian, gure web orriaren aurkezpenarekin; ez zen jende gehiegi hurbildu baino interesgarria suertatu zitzaizen joandakoei. Aurkezpena egin ondotik galderak eta ideiak adierazi zituzten. Gu pozik gelditu ginen. Ondoren, Aurrerako goiko aretoan, Ade Sotilen hitzaldi interesgarria: Guatemala aldean izandako bizipenak eta kontatu zizkigun. Egia esan bertaraturakoek ez zuten presa handirik bukatzeko; horrek adierazten du, hain zuzen, interes maila.
- Hurrengo egunean pilota eskolak eskainiko hitzaldi bikaina. Ander Letamendia sendagileak pilotarien eskuetako gatazkari buruzko azalpenak eman ziz-



Musika plazan



Dindaiakoe ekarritako jolasak

kigun, etorkizuneko pilotari ugari zeudelarik bertan, baita haien guraso ale batzuk ere, espero dezagun zerbait ikasiko zutela.

- Maiatzaren 20an Aurrerako dantzarien jantziak jarri genituen ikusgai, eta Ane Albisuk pasioz beteriko hitzaldia eskaini zigun bertan bildu ginen guztioi. Buruko zapia jartzeko modua ere erakutsi zuen, eta oso gustura gelditu zen hainbeste jende interesaturik sumatu zuenean. Horrela adierazi zigun Anek berak amaieran.
- Ostiralean, hilak 22, haur eta gaztetxoek zuzendutako ekimenak: batetik eta hasteko Dindaiaren eskutik eta eskoletan “Xamariko jolasak” gozatu zituzten, ondoren antzerki saio bikain batekin borobilduz: “Xamarikoren kutxa magikoa” lana. Batzuei motx-antza egin arren oso lan ona eskaini ziguten. Adierazi ziguten motxa zela, haurrak asper ez daitezen, baina gaztigatzea

ahaztu guri. Iluntzean Edorta Agirrek eta Asisko Urmenetak “jaki(te)az” hitzaldi xelebrea eman ziguten, batzuk gustura eta beste batzuk nahasita... Gauean, berriz, Peritza tabernan rock kontzertu borobila. Ez zen bete, baino oso gustura egon ziren bertaratu ziren guztiak.

- Eta ondoren lehenengo asteburua, bete-betea. Larunbata gazte eguna izanik, gazte asanbladak eta bilgune feministak antolatutako egitaraua. Berak gustura zeuden baina gazte jendearen parte-hartze urria kezkatzekoa da. Hausnarketa egin beharko dugu denek, ea bultzada bat lortzen dugun parte-hartzeari dago-kionez. Igerilekuan graffiti tailerrean ere gaztetxoek beren sormenari bide emateko parada izandu zuten, Gizarte Zerbitzuaren eskutik.
- Igandean, 24an, goizez eguraldia goibel, eta denak urduri, baino ateri eutsi zion goizean behintzat, eta, hortaz, Pe-

ruharriren inguru zoragarrian herritar nahiz kanpotar ugari bildu ginen, festa giroan. Ea lortzen dugun bertan egin-dako lan izugarriak gure herriaren ize-na eta Perurenaren azalpenak indarra hartu eta zabaltzea. Arratsaldean natu-rak eskainitako “ikuskizun” beldurga-rriairen ondoren, trumoi eta harri-jasa bortitza eraso baitzion gogotik, elizan kalitate handiko organo kontzertua eman zuten Raul del Tororen ikasleek. Gero eta jende gehiago joaten da horra-ko ekimen horretara. Zinean, berriz, “Locus desertus” lanaren emanaldia... Denetariko erreakzioak sorrarazi zituen; batzuk ikaratuta, besteak ezin ulertu, eta zorionak ematen eta guzi beste batzuen aldetik. Gure iduritan lan berritzaileak eta horrelako gauza bereziak eskaini behar dira aldian-al-dian. Adituek-eta esan digute oso au-sartak izandu ginela Leitzara hori eka-rrita, eta egia esan apustu haundia izan-



Kontzertua Peritzen



Grafitia, igerilekuan

du zen, baina hor gelditu da egindakoa, eta gustura gaude.

- Nekeak neke, beste asteari ekin behar, beste aste bat oso-oso eta mamizu-mamizua. Hala, astelehenean “Leitzako ahozko ondarearen” inguruan egindako bilketaren lanaren aurkezpena egin ziguten. Eusko Kultur Fundazioaren eskutik ibilitakoek, udaleko ordezkariak eta baita parte hartutako herritar frankok ere esku hartu zuten. Hor geldituko da ikusgai-entzungai altxor izugarri hori.
- Asteartean, hilaren 26an, liburutegiko ordenagailuak lanean aritu ziren, interes berezia erakutsi baitzuten joandakoei. Nagusitzen ari zaigun tresna hauekin egin dezakegunaren gaineko tailer moduko saio bat izandu genuen.
- Hurrengo egunean, gizartean pil-pilean daukagun gaia, haur adopzioarena, hain zuzen. Interesgarria suertatu zen azaldu zirenentzat Ima Zestauk eginiko azalpen zoragarria.
- Ostegunean, berriz, historiari emandako tartea; hizlaria, nahiko ezaguna den Floren Aoiz, eta gaia ere pil-pilekoa, 1512ko nafarroako konkista. Hitzaldietan Florenena suertatu da jendetsuena.
- Maiatzaren 29an Torreean izan genuen kulturaz gozatzeko txokoa: batetik, antzerki saio bikaina eta hagitz barregarria, Pantxika Lamurren eskutik (Zirika Zirkus). Hori bai, esan nahi dugu saio hori larriei zuzendua zela, eta haur dezentente azaldu zela. Horrelakoetan, mesedez, kasu egin. Izan ere, gaztetxoek presentziara moldatu behar izan zuen lana antzezleak. Bestetik, gauean Kantaflor

taldeak heavy musika eskaini zigun, eta giro hagitz politta sortu zuen.

- Berriz ere asteburua, eta indartsua eta pisua gainera. Mendibil Mendi taldeak antolatu zituen ekimenak larunbatean, hilaren 30ean: batetik, eskalada ikastaroa eta arratsaldean zine emanaldia eskiaz. Bestalde, graffiti tailerraren bigarren eguna, eta iluntzean “Keltiar Aldea”ren emanaldi gozoa. Zinez ederra eta ikusgarria gure herriko plaza horrela ikusita, festa giroan eta jendearen joan etorriekin... Edertasunaren aipu hori adierazi ziguten hurrengo egunean etorritako artisau batek baino gehiagok. Artisau pila bat eta jendeketa handia, hura eguna izan genuen denek lan bikain eta ederrak ikusteko, taloak-eta jenez. Eta kultur hamabostaldiari adio esateko, festa giroko bukaera; *Garraxi* taldearen emanaldia. A zer nolako saioa. Hura saioaren bizia.

Atal honi akabera emate aldera, aipa dezagun sumatu dugun zerarik azpimarragarriena honakoa dela: jende ezberdin askoren parte hartzea izandu da aurtengo kultur astean. Eta, aniztasunarenaz gain, hori zenez gure helburuetako bat, bada pozik egon behar. Ekitaldi batzuetan beharbada jende gehiago ere espero zitekeen baina orokorrean jende franko izana da ekitaldi guzietan eta tira. Orokorrean hagitz pozik gaude eta balorazio positiboa egiten dugu, alderdi guzietatik begiratuta ere.

AMAIERA

Hori guzia azaldu ondoren zure txanda da orain. Zure iritzia ematekoa, alegia. Ho-

rregatik, bukatu aurretik, adierazi nahi dizugu web orria martxan paratua dugula (<http://leitzakultura.net/>) horretarako, iritzia emateko, eta bestalde, egokiera ezin hobea duzula kultur astean izandutako guziari buruzko informazio asko jasotzeko. Iritzia emateko galdetegia prestatu dugu, eta webean hortxe paratu. Herritar guziak gonbidatuak zaudete bertara joan eta galdetegia betetzera. Oso baliagarria izanen zaigu guri, gainera. Askotan lanean ari garela ez baitakigu herritarrek nola ikusten duzuen geure lana. Ongi ari ote garen eta, ez ba jakin, argi eta garbi esateko, eta, dudatu egiten... Hala, zinez eta benaz diogu, guzien aportazioak eta idurituak interesatzen zaizkigu, eta gainera behar ditugu, gure lana txukunagoa eta baliagarriagoa izan dadin.

Hartaz, ez utzi beste baterako eta egizu balorazioa, mesedez, gure webean, on-line bidez. Ekitaldiei buruzko puntuazio bat emateaz gain, idazten ahal diguzu eta ailegarazi nahi adina aipamen, iradokizun, kritika, iruditutako edota uste.

Esanak esan, eta egiten duzuna egiten duzula, gure aldetik eskerrak ematea baino ez zaigu gelditzen. Artikulua irakurtzetatik eta kultur astean parte hartzetatik edo ez hartzetatik, eskerrik asko guziei.

A, eta ez ahaztu, aurtengo lanak eta eskaintza kulturala ez dira ahitu. Nonbait! Datozen hilabeteetan ere izanen duzu zer ikusia eta zer entzuna. Hori gure kontu.

ALKE Leitzako Kultur Taldea

TXISTEAK

3 apaiz elkartu dira elizen arteko topaketa batean. Kafea hartzen eta tertulia batean ari dira, elizako limosna Jainkoarekin nola banatzen duten azaltzen. Apaiz ingelesa hasi da hizketan:

- Guk Ingalaterran, lurrean marra bat marrazten dugu, limosna airera bota, eta ezkerreko aldean gelditzen dena guretzat eta eskuinekoa Jainkoarentzat.

Apaiz frantsesak hartu du hitza ondoren:

- Ba guk, Frantzian, lurrean 5 cm-ko marra margotzen dugu, limosna aire-ra bota, eta marraren barrenean gelditzen diren diruak Jankoarentzat eta gainerakoak guretzat.

Azkenik, euskaldunak, barrez begiratu die besteei, eta hala esan die:

- Guk modu errezenean egiten dugu: limosna bota gora, eta Jainkoak hartzen dituenak beretzat eta lurrera erortzen direnak guretzat.

Eskolan maisuak galdetu omen dio ikasle artista horietako bati:

- Zenbat dira 2 + 2?

Ikasleak segituan:

- Emateko 3 eta hartzeko 5!

Gizon bat txori dendara sartu da eta loro elebiduna eskatu du. Dendariak hanka bakoitzean soka bana zuen bat erakutsi dio.

Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu –azaldu dio saltzaileak- eta eskuinekotik tira eginez gero, katalanez.

- Aizu, eta bietatik batera tira egiten badiot? –galdetu zion bezeroak.

- Zozo halakoa! Lurrera joango naiz mokoaz aurrera! –erantzun dio loroak.

Familia batean denak biltzen omen dira Eguberrietan, eta gazteak aitona-ri galdetu dio:

- Aitona, aitona! Ikusi al duzu nire tripia?

- Ez, eta zuk pasilloko elefantea?

Honako galdera hauek AEBetako epaiketetan serio egindakoak omen dira.

1. Eta beraz, mediku jauna, ez al da egia pertsona bat lotan dagoela hiltzen bada, hurrengo goiza arte ez dela horretaz jabetzen?
2. Eta zu bertan al zeunden zure argazkia hartu zutenean?
3. Nor hil zen gerran, zu edo zure anaia?
4. Berak hil zintuen zu?
5. Elkar jo zutenean, bata bestearen-gandik zein distantzira zeuden bi ibilgailuak? Eta
6. Zu, alde egin arte, han egon zinen, ez da hala?

HIZKUNTZAREN BITXIKERIAK

Ea hiru esaldi hauek arazo handirik gabe irakurtzeko gai zaren, nahiz eta modu “xelebre” samarrean idatzita dauden.

1. H1ZKUN7Z4 4M417Z3N D3N34N H4573N D4 MU51K4.
2. MU51K4 D4 4R73R1K ZUZ3N3N4, B314RR171K 54R7U 374 B1HO7Z3R4 DO4.
3. 6ORPU7Z4R3N7Z47 5O1NK374 NO14, H414 D4 MU51K4 4R1M4R3N7Z47.

zer diozu?

eta zuk,

Unai Zabaleta



- **Erlijioa omen zen garai batean herriaren "opioa".** Futbola omen da gaur egun. Zein izanen da etorkizuneko? Erlijioa garai batean izanen zen, orain ez dut uste hala denik, nahiz eta gaur egun oraindik ere nahiakoa pisu baduen. Futbolak berriz "opioa" izaten jarraituko du. Argi dudana da ez orain eta ez etorkizunean, nere "opioak" ez direla izanen, ez erlijioa ezta futbola ere.
- **Aspertzen al zara inoiz? Eta zer egiten duzu horren kontra?** Tarteka inoiz denak aspertu izan gara, eta ni ere bai. Horrelakoetan, gehienetan musikara jotzen dut, instrumenturen bat jotzen pasatzen dut denbora.
- **Irakurtzea ona omen da. Ez irakurtzea txarra al da?** Irakurtzea dudarik gabe oso ona izanen dela, baina ez irakurtzea ez dut uste txarra denik, bakoitzak bere beharrak asetu behar ditu, egokien iduritzen zaion bezela. Oheko mesillan aspaldiko partez liburu bat dut eta tarteka irakurtzen dut.
- **Oporrak, azkeneko detaillerraino planifikatuta, edo nahiago inprobisatuz joan?** Denbora, aukera, dirua izanez gero berdin zait bata ala bestea. Batzuetan planifikatzea gustoko dut, opor lekuaren arabera, besteetan berriz oporrak datozen bezela, beraz biak gustoko.
- **San Juan bezperako afarian mila lagun inguru elkartzen dira. Zerk elkartzen du hainbeste jende? Lehenik eta behin pestarako gogoak. Udar sartu berriak, asko oporretan, San Tiburtzioak ere gertu... Eta dudarik gabe herritar ugari, adin desberdinetakoak, kuadrilla ezberdinak... denak, elkarrekin plazan elkartzea xarma berezia du, oso gau berezia eta ederra da.**
- **Bene-benetan eta bihotzez, zein dira pesta hobeak: Leitzakoak edo sanferminak?** Ni Leitzarra naizen heinean San Tiburtzioak noski. Hala ere egia da eta hemendik (Leizatik) ateraz San Ferminak bezelakori ez dagoela. Hori bai, txoznak debekatu zituztenetik San Ferminetako zati handi bat kendu zieten, pestaren parte garrantzitsu baitziren.
- **Zer nahiago duzu: eguraldi euritsua eta Leizta berde-berdea, edo eguraldi "hobexea" eta Leizta horiagoa?** Orain dagoen bezela bikain, beraz nahiago euria eta berde berdea.
- **Leitzan zuzendu beharreko zerbait:** Seguruaski gauza mordoska izanen dira, baina Leitzan kaleen izenak txukun eta behar den bezela, kale bakoitza bere izenakin jarzea. Honetan hutsuneak ditugu. Kanpotik inor etortzen bada zail izaten du galdetu gabe toki, etxeren bat aurkitzea.
- **Leitzan falta den zerbait:** Bat esate aldera Kultur etxe txukun bat. Leitzan zorionez kultur arloan ekitaldi ugari antolatzen da, lagun mordoskak lan egiten du musutruk urte guzian zehar Leitzan zerbait egon dadin.
- **Leitzan soberan dagoen zerbait:** Hain zuzen ere kultur etxea egiteko lekurik, etxerik egokiena Ontsaluneko herriko ondoko etxea dugu, "Maxurrenea Kultur Etxea", zein izen polita kultur etxe batentzat.

Aitziber Lekuona

- **Erlijioa omen zen garai batean herriaren "opioa".** Futbola omen da gaur egun. Zein izanen da etorkizuneko? Auskalo! Ez bata zein bestea ezta nere gustokok, beraz, etortzen dena ere, eztaikit...
- **Aspertzen al zara inoiz? Eta zer egiten duzu horren kontra?** Haitz gutxi. Beti bilatzen dut zer eginga. Irakurri, launakin gelditu, hilobari bixitatxoa in, eta etxeko kontukin sartzen banaiz, ba zer esango dizut ba! Aspertzeko denborik ez!
- **Irakurtzea ona omen da. Ez irakurtzea txarra al da?** Ez irakurtzea txarra dela esatea enitzake ausartuko. Miño ez irakurtzekin, beste mundu bat ezagutzeko aukera galtzen dela bai. Mundu hontako gauzik aberasgarrinakoa eta asko ikasteko modua ematten duna, mundun berri izateko, ongi pasatzeko, amesteko, jenden berri izateko, kulturalki aberasteko,...
- **Oporrak, azkeneko detallerraino planifikatuta, edo nahiago inprobisatuz joan?** Nahiago inprobisatu. Orain arte hala egin dut eta hemendik aurrera ere baietz esango nuke baina zenbait bidaiatarako gomeni da zerbait planifikatuta eramatea.
- **San Juan bezperako afarian mila lagun inguru elkartzen dira. Zerk elkartzen du hainbeste jende? Nik uste herri giroa eta parrandak.**
- **Bene benetan edo bihotzez, zein dira pesta hobeak: Leitzakoak edo San Ferminak?** Leitzakok. Herritako fiestak gustatzen zaizkit niri. Baina, ni Goizutarra izanik,... ze esango dizut ba!
- **Zer nahiago duzu: eguraldi euritsua eta Leizta berde-berdea, edo eguraldi "hobexea" eta Leizta horiagoa?** Euldi hobexioa nahio, miño Leizta berde-berdea ere bai!
- **Leitzan zuzendu beharreko zerbait:** Autobus zerbitzua hobetzea, adibidez ordutegi hobe eta gauekoak.
- **Leitzan falta den zerbait:** Zaborra birziklatzeko aukera izatea eta osasun zerbitzuak handitzea, adibidez ginekologia, erreabilitazioa,...
- **Leitzan soberan dagoen zerbait:** Maxurreneakok.

